



Suziriarekin hasi dira aurtengo Tolosako san Joan jaiak

GAUR ▶ Seirehun lagun inguru ibiliko dira goizetik gauera ekitaldi tradizioaletan parte hartzen

BANDAK ▶ Musika eta txistulari bandako zuzendariek «egun luzea» dela eta asko indartu dela diote ▶ 2-7



3. Mailara igo den Tolosa CFko ordezkariak eta udal ordezkariak izan ziren udaletxeko balkoian suziria botatzeko garaian. IRATXE ETXEBESTE

TOLOSALDEA ▶

Etzi, zaldi lasterketako ligaxkako proba

Amezketatik Abaltzisketara igoko dira 17 zaldunak ▶ 10

JULEN ZELARAIN ▶ PRESO OHIA



IMANOL GARCIA

«Momentu politiko hau baliatu behar dugu» ▶ 9

LEITZA ▶

Zilarrezko Bidea egin dute oinez Santiagora

Tomas Erbiti eta Tiburtzio Azpiroz ▶ 11

ATAIKI
TATTOO
tatuaia artistikoa
mikropigmentazioa
mehandi
pierzing
osagaiak

943 11 05 47
629 39 36 01

kale nagusia 11 TOLOSA

Iriarte
GERRUNTZE • LENZERIE

Korreoa kalea, 7 • TOLOSA

**AZKEN
AUKERAK**
%40 eta
%50eko
BEHERAPENA

EGITARUA ▶ HERRIZ HERRI

ABALTZISKETA

GAUR ▶

11:00. Meza nagusia. Ondoren, jubilatuentzako hamaiketakoa.

11:00-13:00. Eskulan erakusketa Kultur Etxean.

13:00. Toka txapelketa herriko plazan.

17:30. Pilota partiduak: lehenik, herriko pilotariak; ondoren, gazteak: Artola-Nazabal / Iraola-Garmendia eta nagusiak: Apeztebea-Mintegi / Elurbe-Baez I. Jarraian, bertso saioa Larrañaga eta Narbaizarekin.

18:00-20:00. Eskulan erakusketa Kultur Etxean.

23:30. Erromeria Epelde eta Larrañaga trikitilarietara. Atsedendian, txinga apustua.

ANOETA

Festa ofizialak.

GAUR ▶

11:00. Kalejira Anoetako txistularietara.

12:00. Meza jubilatuei eskainia Landabaso abesbatzarekin.

Ondoren, udal dantzariak eta txistulariak ariko dira herriko

jubilatuaren omenez.

13:30. Herriko jubilatuei eta pentsiodunen bazkaria Bentalea bodegoian. Ondoren, dantzaldia.

BELAUNTZA

Festa ofizialak.

GAUR ▶

Goizean. Kalejira txistularietara.

11:00. Herri meza. Jarraian, txistulariak. Ondoren, hamaiketako herrikoia herriko tabernan.

12:00-14:00. Herritarren eskularen erakusketa Kultur Etxean. Jarraian, bertsolarien lehen saioa: Telleria eta Mañukorta.

18:00. Pilota partiduak herriko gazteen artean. Ondoren, Zelaia eta Mujika, Irazusta eta Ugartemendiaren aurka.

19:30. Bertsolarien bigarren saioa. Ondoren, Santi eta Juanito trikitilariak.

23:00. Etxebeste eta Olasagasti aizkolariek eta Landarbide harri-jasotzaileak. Ondoren, erromeria goizaldera arte Santi eta Juanito trikitilarietara.

Festa alternatiboak.

GAUR ▶

17:00. Dantzariak: Berastegiko haurrak, haur jolasak eta merienda.

21:00. Herri afaria. Segidan, toka eta txinga txapelketa. Trikitilarietara eta bertsolarietara alaituko dute festa hasiera.

TOLOSA

GAUR ▶

07:00. Alkate Soñua Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.

08:30. Diana, Tolosako Musika Bandarekin.

08:45. Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.

09:00. Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.

09:00. Txirrindulariak (irteera): 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, XXXIII. Jose M. Anza Memoriala, Oriako Txirrindulari Eskolako antolatuta.

09:30. Plaza Zaharrean Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira.

Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea egingo dute, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez, udalbatzak

presidituta.

10:00. Meza nagusia, Santa Maria parrokiaren. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute udalbatzak, kofradiek eta Tolosako bordondantzariak; aldi berean, elkarteetako eskopetarietara ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan.

Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Foruen plazan, Trianguloan, bilduko dira, bertan eguneko azken deskargak egiteko.

11:45. Txirrindulariak (amaiera): XXXIII. Jose M. Anza Memoriala.

13:00. Kontzertua Plaza Berrian, Tolosako Musika Banda eta Tolosako eta Iruñeko udal txistularietara.

16:45. Udalbatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zarretik abiatuko dira, Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoi-zetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzean,

udalbatza, bordondantzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetariaren konpainiak Trianguloan bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko. Ondoren, udalbatza, Zumardi Handira joango da. Han ohiturazko aurrekua dantzatuko da.

18:00. Zezen-plazan, zezen-errekortarien I. Lehiaketa.

Dehesa de Guadarrama ganadu ebeko zezen adar zorrotzekin aurrean.

18:00. Berdura Plazan, Poxpolo eta Mokolo pailazoak.

19:00. Beotibar pilotalekuan Zesta-punta jaialdia, jokalariei profesionalentzako.

20:00. Lope Mendizabal

plazan capoeira emanaldia Zorabioak taldearen eskutik.

23:00. Su festak, 2. bilduma; Pirotecnia Zaragozana.

23:00. Frontonen kontzertua Tomas Moreno Romero

Tomasito kantariaren eskutik.

23:30. Kontzertua Trianguloan Urko kantariaren eskutik.

00:00. Kontzertua Plaza Berrian: Sex Museum eta Brigada Criminal.

TOLOSA ▶ TXUPINAZOA



2.005 gogoeta

Suziriarekin hasi dira aurten ere sanjoanak

IRATXE ETXEBESTE

Ohiko txupinazoak eman ziren atzo ere San Joan jaiei hasiera. Plaza Zaharra jendez lepo zela, Tolosa CF-ko kapitain Aiert Pradosek izan zuen atzokoan udaletxeko balkoitik suziria jaurtitzeko ohorea, denboraldi honetan herriko futbol taldeak egin duen lan bikainaren adierazgarri. Alboan zituen Tolosako lehendakari ohi Jon Aldazabal eta Iñaki Arratibel lehendakari izendatu berria, beste hainbat arduradunekin batera. Horiek guztiek jaso zuten behaldez ziren herritarren: haurren, gazteen eta helduen agurra. Txalo eta oiherarte.

Suziria zeru aldean lehertu bezain laster zabaldu zen algarra plaza osora. Dantzan, jauzika hasi ziren herritarrenak dultzaineroen eta txistularien doinuaren menara. Buruhandiek eta erraldoiek ere ez zuten hutsik egin, nola ez. Bero zen oso atzo. Horixe esaten zuten kalejira hara eta hona aritu zirenek. Ura edanez egin zioten aurre gehienek eguzkiaren indarrari. Saltoka zebiltzanek baino gehiago sufririko zuten, baina, erraldoiak astinduz panpin handi haien azpialdean ziren gizonetakoek.

Kontuak kontu, hasi dira jada 2005eko sanjoanak. Hamaiak gertakizun, zelebretaria jazo zoko dira datozen egunetan herriko txokoetan. 2.005 gogoeta egiteko balioko dute gero.

LASKORAIN IKASTOLA

SANJOANETAN Euskaraz bizi

Usabal auzoa, 26 • TOLOSA
Tel.: 943 69 71 22

BELAUNTZAKO UDALA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel.: 943 67 43 66

Laiet
TABERNA

GOSARIAK ETA MUSIKA ONA
Sanjoanak ondo pasa!
Arostegieta • TOLOSA • 943 67 51 19

arkume
MODA

Korreo galeriak, 11 • TOLOSA
Telf.: 943 67 46 12

LUIS MARI GARTZIA ETA IÑAKI LETAMENDIA ▶ MUSIKA BANDA ETA TXISTULARI BANDA KO ZUZENDARIAK



LEIRE MONTES

«San Joan Eguna benetan luzea izaten da guretzat»

Eguneko protagonista nagusietako batzuk dira bi bandak; urte asko daramatzate bi zuzendariak eta partaidetza handitu egin dela diote

GARAZI AZKUE

Tolosan jaio ez arren, tolosarizat dute euren burua. Iñaki Letamendia eta Luis Mari Gartzia Udal Txistulari Bandako eta Tolosako Musika Bandako zuzendariak dira, hurrenez hurren; eta ondorioz, arras ezagunak herrian. 35 urte daramatza Letamendiak bandan eta 44 urte Gartziak. Lehengo eta oraingo sanjoanek ezagutu dituzte biek.

Zein da zuen lana sanjoanetan?

Luis Mari Gartzia. Urtean zehar betebeharrak batzuk izaten ditugu herria giroten. Erregetan, Inauterietan, lehen Aste Santuan ere aritzen ginen; ia hila-betero kontzertuak izaten ditugu. San Joan Eguna oso luzea izaten da ordea: goizean goiz hasten gara, txistulariekin, eta gaueko bederatziatan bukatzen dugu egun guztia igaro ostean.

Iñaki Letamendia. San Joan bezperan hasten da lan gogorra, Bezeretarako abisatu,

Udal Korporazioa lagundu... San Joan Egunean, berriz, goizeko zazpitan hasi eta gaueko bederatzia arte ez dugu ia geldialdirik egiten, handik hona: dianak, meza nagusirako deialdiak eta kontzertuak izaten dira egun guztian. San Joan eguna benetan luzea izaten da guretzat.

Nola jasaten duzue?

L.M.G. Gure betebeharra da. Bizitza guztian ezagutu ditugu sanjoanek modu honetan. Taldekide asko gazteak dira eta gauean parrandara ateratzen dira, baina badakite hurrengo egunean lan hori bete behar dutela, urtero bezala.

I.L. Hala ere larri ibiltzen gara, egun luzea izaten da. Gainera txistulariok galako jantziekin ibili behar izaten dugu: kapa gainean, galtzerdi luzeak... bero handia pasatzen dugu. Dena dela, hasi aurretik badakizu zer datorkizun eta gustura aritzen gara.

Eta sanjoanek ezberdinak al ziren orain 35 urte eta orain?

I.L. Gure lana antzekoa da or-

duan eta orain. Festari dago-kionez, ordea, guk beste modu bateko sanjoanek ezagutu genituen. San Joan egunean, batel estropadak izaten ziren festarik handiena, izugarriko jendetza biltzen zen; gero desagertu egin ziren. Eskopetariak ere asko aldatu dira, orain 35 urte konpainia bakarra ateratzen zen, hamabi bat lagunekin. Gaur egun 500 bat izango dira eta gainera gazte jendea da. Garai haietan, eguraldi ona egiten bazuen, jendea hondartzara joaten zen; ez zegoen ezer sanjoanetan. Orain Koadrila Eguna izaten da, pailazoak kalean, kaleko antzerkia, futbol txapelketak, saskibaloia, tenisa... Orduan ez zegoen horrelako ezer: zezenak eta prozesioak besterik ez.

L.M.G. Eskopetarien kasua da, beharbada, jendea herrian geratu arazi duen ekintza garrantzitsua. Goizean bakarrik ateratzen ziren lehen, eta konpainia bakarra gainera. Hernanira edo joaten zen jende hori guztia hemen gelditzen da

orain. Ohitura bilakatu da Tolosan.

Horrela herritarrek gehiago hartzen dute parte...

I.L. Bai, baina ongi kostata. Badakizu, tolosarrek nahiago izaten dituzte Inauteriak. Orain jende gazte asko gelditzen da eta bizitza handia eman dio festari.

Sanjoanek ere oso ezberdinak izan dira zuek.

I.L. Guk ez dugu beste sanjoanik ezagutzen. Nik horrela ezagutu ditut sanjoan guztiak. Parranda... ez dut gogoratzen inoiz bota izana sanjoanetan. Gaueko bederatziatan bukatu eta goizeko seiatan esnatzen gara hurrengo egunean; familia, lagunak... ez ditut ikusi ere egiten. Gure mundua hori da eta ongi pasatzen dugu ahal den moduan.

L.M.G. San Joan bezperako suan jotzen du Musika Bandak urtero, *San Joan martxarekin*. Baina hurrengo goizean, dianan hartu behar dugu parte eta egun guztia dugu aurretik; beraz, suak ikusi ondoren,



IÑAKI LETAMENDIA
UDAL TXISTULARI BANDA

«Parranda... ez dut gogoratzen inoiz bota izana sanjoanetan; bederatzietan bukatu eta seiatan esnatzen gara»



LUIS MARI GARTZIA
TOLOSAKO MUSIKA BANDA

«Eskopetarien kasua da, beharbada, jendea herrian geratu arazi duen ekintza garrantzitsua»

gauerdian-edo etxeratu behar izaten dugu.

Berezia al da sanjoanetan jotzea?

L.M.G. Bai. Sua pizteko uanean, *San Joan martxa* entzuten duzula, askotan hunkitu ere egiten zara. Bertakoa bazara barruan zerbaite berezia sentitzen duzu.

Herritarrek aintzat hartzen al dituzte herriko bandak?

L.M.G. Bai, zalantzarik gabe. Jendeak maite gaituela sentitzen dugu, bandarik gabeko festarik ez dute imajinatzen.

I.L. Bai. Iganderoko dianan, esaterako, beranduago ateratzen bagara, denek galdetzen dizute zer gertatu den. Jendea konturatzen da eta horrek poza ematen du.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agurrak. Zuk jarritako agur argazkia mundu osoan ikus daiteke, gure webgunean sartzen baitugu. Aurreko egunetakoak ere ikus daitezke bertan.



TOLOSA ▶ KOADRILEN EGUNA

Lagunarteko festa

650 lagun inguru bilduko dira gaur Koadrila Eguneko bazkarian; eguraldiaren arabera erabakiko da lekua; Tolosa Kup-eko finalarekin hasiko da eguna

OLAIA ESKITXABEL

Blusa edota nikia soinean, kalean igaroko dute eguna bihar herriko koadrilek. Koadrilen Eguneko zapiak ere jantzen dituzte askok; ez dutenek, herriko tabernetan eskuratzeko aukera izango dutela azaldu dute antolatzaileek. 11:00etan hasi eta eguna amaitu bitarte ekitaldi ugari izango dira.

Egun bateko gauza izaten da; antolatzeak, ordea, egun gehiago eskatzen ditu. Aurten, ardura hori lau koadrilen artean banatu dute. Batzuk, lan horretan esperientzia dutenak eta «erreleboa emateko gogoz daudenak» eta besteak, berriz, estreineko ardura hori hartu dutenak.

Proposamen desberdinak aztertu ondoren, aurrera eramanez ahal izateko Udalarekin bildu dira. «Tabernariak ere asko laguntzen dute zeregin horretan», zehaztu dute antolatzaileek.

Emaitzarekin gustura agertu dira antolatzaileak, eguna ondo beteta utzi dute: hamaiketakoak, kalejira, bazkaria, arraun festa, musika kontzertuak...

Tolosa Kup-eko finala

Koadrilek izango duten lehenengo hitzordua 11:00etan izango da Berazubiko kiroldegian. Bertan jokatuko da Tolosa Kup-eko finala.

Urtero bezala San Joan jaia hasi baino bi hilabete lehenago—apirilaren erdialdean—hasi zen futbol txapelketa hori. Guztira 48 talde eman dute izena eta astebururo, larunbata eta igande goizetan izan dituzte partidak Uzturpe kiroldegian.

Finalen Goxua gozotegia



Hirurogehi koadrila inguru bilduko dira bihar bazkarian; argazkian, iaz egindako bazkaria. JAIONE ASTIBIA

eta Ekaitz ariko dira. Azken fasean, Goxua gozotegia taldeak bi partidutan penaltietara irabazi du. Hirugarren partida, berriz, erraz gainditu zuen 7-1 emaitzarekin. Aipatzekoa da talde hori iazko finala jokatu zuten bi taldeek osatu dutela. Ekaitz taldeak azken hiru partidak penaltietan irabazi ditu eta nahiko justu gainera. Emozioa behintzat ez zaio falta biharko finalari.

Antolatzaileek txapelketa aurrera ahal izateko laguntza eman duten guztiei eskerrak luzatu nahi dizkiete.

Partida amaitu ondoren sari banaketa egingo dute. Jarraian, herrirako bidean geldialditxoak egingo dute Berazubiko plazan. 12:00ak aldera hamaiketakoak banatuko dute; giroa alaitzen, Bonbereneako txaranga-kideak egongo dira. Eta, tabernaz taberna kalejiran bazkaltzeko ordua iritsiko zaie.

Eguraldiari begira

Makina bat zerura begira jaiki-ko dira bihar. Izan ere, eguraldiak berebiziko garrantzia du beti eta baita Koadrilen Egunean ere. Eguraldi ona eginez gero, beti bezala, bazkaria Plaza Berrian izango da; eguraldi txarrenekin, berriz, ziurrena Ferialekuan egingo dute, baina hori egunean bertan zehaztuko dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Gustura daude antolatzaileak; bazkarirako 650 txartel saldu dituzte. Aurreko urteetan baino gehixeago.

Aurreko urteen antzera, salda, zikiroa, postrea eta kafea izango dute bazkaltzeko. Antolatzaileek sagardo kupelak jarriko dituzte eta ur botilak ere jarriko dituzte mahaietan.

Bazkal ondorenerako arraun festa antolatu du Galtzaundik. Estreinekoz egiten da ekitaldi

hori eta antolatzaileak «jendearen erantzuna ikusteko gogoz» daudela azaldu dute. Lau ergometro eta ordenadore pantaila bat jarriko dute bazkaria egingo den lekuan eta koadrila desberdinetako kideak lehiatzeko aukera izango dute. Nahikoa izerdi bota ondoren, egarrituta egongo direla eta poteoa egingo dute jarraian.

Eguna amaitu arte, dantzan

Urteroko ohiturari jarrituz, *Larrain dantzan* bilduko dira herriko koadrila asko eta asko. Plaza Berrian egiten dute. «Giro berezia sortzen da», diote antolatzaileek. Jende askok ezagutzen du *Larrain dantza* eta ez dakitenak ere animatzen omen dira.

Gauean ere dantza egiteko aukera izango dute Plaza Berri-
ra gerturatzen direnek. Aurre-

EKITALDIAK ▶

11:00. Tolosa Kup-eko finala Berazubiko kiroldegian.

Ondoren, sari banaketa.

12:00. Hamaiketako

Berazubiko plazan,

Bonberenea txarangarekin

Ondoren. Kalejira tabernaz

taberna.

14:30. Koadrilen arteko bazkaria plaza Berrian (euria ari badu, erabakiko dute).

Bazkaltzen amaitutakoan.

Arraun festa Galtzaundik

antolatuta. Ondoren, poteoa.

19:00. Larrain-dantza Plaza

Berrian.

24:00. La Familia Iskariote

eta La Pulqueria taldeen

kontzertua Plaza Berrian.

TOLOSA KUP ▶

FINAL-ZORTZIRENAK

Sinsalus-Basajaunak	2-2
Tpte. escolar-Harry Potte	3-6
Gokugol-Itzuli tab.	4-3
The Patxis -Goxua gozotegia	3-4
Txoko biki-Vendo papa movil	6-1
Vespa boys-Txanpa	3-5
Lekukik-Orbela	6-1
Amarotz-Ekaitz	1(4)-1(5)

FINAL-LAURDENAK

Sinsalus-Harry Potte	4-5
Gokugol-Goxua gozotegia	1-7
Txoko biki-Txanpa	3-2
Lekukik-Ekaitz	3(2)-3(3)

FINALERDIAK

Harry Potte-Goxua gozotegia	2(2)-3(2)
Txoko biki-Ekaitz	1(0)-1(2)

FINALA (BIHAR)

Goxua gozotegia-Ekaitz	11:00
------------------------	-------

ko urteetan, «talde salseroak, dantza egiteko gogoak jartzen duten horietakoak, etorri dira eta aurten ere antzeko taldeak ekartzen saiatu gara», azaldu dute antolatzaileak.

La familia Iskariote izango da talde teloneroa. *Ska* eta *reggae* musika egiten du talde horrek; *punk* ikutuak ere baditu 2.001ean sortutako talde horrek. Kaleratu dituzten lanetako abestiak eskainiko dituzte.

La pulqueria taldearen abestiak izango dira entzungai ondoren. *Hard* mariachi musika—*rocka*, *mariachi* eta *punka* nahastuz egindako nahasketa berezia—egiten du Valentzia-ko talde horrek. *Corridos de amor* lana iaz kaleratu zuen eta bertan jasotzen diren abestiak aurkezuko dituzte bihar Tolosan. Geldirik egoten nahikoa lan izango dute plaza Berrira joaten direnek.

LAB Langile Abertzaleen
Batzordeak

Euskal Herrian bizi eta lan bertan erabaki

sanjoanak ondo pasa!

Gorosabel 29,1. • Tel.: 943 67 00 26 • 20.400 TOLOSA

Mertzeria eta konponketak

MATILAKO

Zumalakarregi, z/g • Tolosa • Tel.: 943 65 25 78

Jai zoriontsuak pasa!



ABALTZISKETAKO UDALA

Abaltzisketa udalak bere herritarrak agurtzen ditu. Ondo pasa jaietan!

Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.
-- 7etan irekita --
66
M.J. Iraola, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 67 19 37

TOLOSA ▶ EKITALDI TRADIZIONALAK

Protagonisten eguna, orduz ordu

Egun luzea eta betea dute dantzariak, eskopetariak, musikariak, txistulariak, udal korporazioak...; guztira 600 lagun inguru goizetik gauera ibiliko dira batera eta bestera

JOXEMI SAIZAR

Seirehun lagun inguru ibiliko dira gaur goizetik gauera festaren protagonista nagusi gisa: 450 eskopetari, Musika Bandako 50 kide, 25 dantzari eta bere 4 txistulari, Tolosako eta Iruñeko udal txistulari bandetako 12 partaide, udal korporazioko alkatea, 16 zinegotzi, 2 alguazililo eta 2 mazer. Egun luzea izango dute. Orduz ordu xehe-tuko dugu.

6:00. Lizar adarren bila abiatuko da dantzari koadrila bat inguruko mendietara.

7:00. Lizar adarrak jarriko dituzte Alde Zaharreko atarrietan, izpiritu txarrak uxatzeko. Txistulariak alkate eta zinegotzi guztien etxeetara abiatuko dira *Alkate soinua* jotzeko.

8:30. Musika Bandaren diana *Desperta en Enguera* eta *La Anunciacion* jotz. Ondoren, Tolosako eta Iruñeko udal txistulari bandak aterako dira eta Musika Bandarekin batera *Goizeko izarra* joko dute. Gaitariak ere aterako dira. Eskopetariaren konpainietako kideak bere elkarrekin bilduko dira gosaltzeko.

9:30. Eguneko protagonista guztiak lehen aldiz elkartuko dira plaza Zaharrean eskopetari konpainien Alardea egiteko.

10:00. Meza nagusiak orkestra, koro eta organoarekin *San Joan zortzikoa* interpretatuz. Sermoi berezia izaten da. Udal korporazioa meza nagusian dagoen bitartean hamaiketako egiteko aprobetxatuko dute dantzariak, musikariak, eskopetariak...

11:30. Prozesioaren hasiera



Bordondantzariak agintariei arkuak egiten Zumardi Handian. A. ELDUJAIN

San Joan zortzikoa dantzatuz. Egun osoan zehar entzun ahal izango da doinu hau behin eta berri. Apaizak, santuak darमतzaten kofradiak, kanpaijoleak erantsi behar zaizkie aipatutako guztiei.

13:00. Musikariaren egunerko une garrantzitsua: bi txistulari banden eta Musika Bandaren kontzertua plaza Berrian. Lehendabizi bakoitza bere aldetik eta bukatzeko, denak batera.

14:30. Bazkaltzeko tartea, taldeka elkarrekin, jatetxeetan edo ahal den tokian.

16:45. Berriro denak elkartzea plaza Zaharrean, Santa Maria parrokiaren bezperak eta Arra-

mele ermitan arrats otoitzak entzuterako joateko. Dantzariak alabardak eta banderilak hartu eta *Bordondantza* egingo dute.

18:30. Azken deskargak Trianguloan eta denak batera Zumardi Handira abiatuko dira, *Aurreskua* egiteko.

21:00. Zumardi Handitik bueltan, Trianguloan bukaera. *San Joan zortzikoa* ehundaka aldiz entzunda, denon belarrietan. Afaria bakoitzak ahal duen moduan. Batzuk oraindik azken urteotan askotan egin izan den *Lizarraren prozesioa* inprobisatzeko kemena izango dute goizeko ordu txikietan tabernen inguruetan.

MIKEL AGIRRE ▶ DANTZARIEN KAPITAINA

«'San Joan' dantzatzen hasteko unea da eguneko politena»

Mikel Agirre dantzari amoztarra da Bordondantzako kapitaina, San Joan eguneko protagonistetako bat. Bere bizipenak azaldu dizkio HITZARI.

Noiztik ateratzen zara San Joan egunean dantzatzen?

1991an hasi nintzen Udaberri dantzari taldean eta harrez gero urtero ateratzen naiz. Azken bi urteotan kapitain bezala ateratzen naiz. Aurten goizean, prozesioan, Aritz Iglesias gaztea izango da dantzariaren kapitaina eta arratsaldean ni *Bordondantza* eta *Aurreskuan*.

Nola aukeratzen dira dantzariak?

Maiordomoaren ardura da, apiriletik aurrera egiten diren entsegetara joandakoan asistentzia, dantzari taldean duten esperientzia eta dantza mailari begiratuta. Mutil faltaren arazoa dago dantzari talde guztietan eta aurten inoiz baino arazo gehiago izan ditugu 25 dantzari elkartzeko.

Zer sentitzen da?

Egun berezia da parte hartzen dugunontzat eta kapitaina izanda gehiago.

Zein da eguneko unerik politena?

Egun osoa da polita, baina meza nagusiaren artea eta prozesioaren hasiera bereziki, Santa Maria plazan. *San Joan* dantzatzen hasteko unea.

Aurreskua asko luzatzen dela diote batzuk.

25 dantzari gara eta 25 neska



JOXEMI SAIZAR

atera behar izaten dira eta gero eta zailagoa egiten zaigu. Horregatik luzatzen da **Zumardi Handia urrutit egiten dela diote beste batzuk.** Tradizioa han egitea da eta hori mantentzearen aldekoa naiz.

Orokorrean, zein da gehien gustatzen zaizun dantza?

Gipuzkoako *Brokel* dantzaren ziklo osoa. Udaberrin hori landu izan dugu gehien eta gehienok hori dugu gustukoena. Horretaz gain, euskal dantza guztiak gustatzen zaizkit: Lapurdikoak, Bizkaikoak, Nafarroakoak...

Parte hartzen al duzu sanjoanetako beste ekitaldietan?

Orain arte gehiago, Koadrilen Egunean eta parrandan, baina orain haur txikiarekin ezin dut. ◀

SEGUROS BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala
San Joan festa zoriontsuak opa dizkizu

Laskurain, 8 behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

Santamaria

ELECTRICIDAD, C.B.

Korreo kalea, 26 bajo • Tfnoa: 943 67 12 49 • 20400 TOLOSA
Kale Nagusia, 1 bajo • Tfnoa: 943 67 03 35 • 20400 TOLOSA

KLIŠK

Argazki Erreportaiak

San Franzisko, 6
☎ 943 11 85 45 • TOLOSA

ZERBITZU BULEGOA

AIXA

Nominak - Kontabilitateak
Zergak- Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuartez@euskalnet.net

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Astebukaeretan eta oporren ordezkapenak egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33 telefonora.

SALGAI

Ahuntzak. Ahuntz nanoak salgai. 650 865 626 edo 948 51 42 68.

TOLOSA > ESKOPETARIAK

Armak bete, gora, begizta... su!

Azken urteotan San Joan eguna indarberritu egin du eskopetari konpainien ugaltzeak; aurten Arco Iris-Ortzadar elkarteak aterako da lehen aldiz eta 13 konpainia izatera iritsi dira

JOAKIM SAIZAR

Alderdea, defilea, eskopetariak, fusila, uniformea, formazioa... kutsu militarroko hitzak dira, baina Tolosan beste esanahi bat dute: festa giroa, adiskidetasuna, elkarbizitza, parte-hartzea... Galtzer negarri San Joan eguneko oihitza hau berreskuratu eta berrindartu egin da azken urteotan, desenpartaidetza posible eginez: neskak, mutilak, haurrak, gazteak, helduak... baina intsumioak ere.

1980tik egiten da eskopetari konpainien Alardea, baina betidanik parte hartu izan dute eskopetariak egun berean horretan. XVII. mendetik 1876an galdutako arte egiten ziren zaindaria ren egunetan edo Korpus egunetan Gipuzkoako herrietan. Armatariak ez zegoenez, gerraren kasuan prest zeuden armak eta pertsonak zenbatzeko balio izaten zuten. Sanjoanen barruan, gara batean gotzako prozesioan eskopetari ziren pertsona berak bordon-dantzari ziren arratsaldean. Urte askotan konpainia bakarra izaten zen, 1979 bitarte. Gero elkarre modura hasi ziren ateratzen konpainiak eta Sukaldekoa da geiziduen den zaharrena. 1979tik ateratzen dena. Pixkanaka pixkanaka beste elkarre batzuk animatzen joan dira eta aurten ere izango da talde berri bat: Arco Iris-Ortzadar elkarteak. Arma bete, gora, begizta... su!



Eskopetariaren saioa Trianguloan arratsaldean. URTE MONTE

KONPANIAK >

Hauetx dira konpainien datu batzuk: sormera urtea, partaideo kopurua, kapitaina eta janzkera, zaharrenek hasita.

- Sukalde.** 1973. 20. Javier Ugarte. Txaleto urdin iluna. Batasuna. 1975. 40. Joakin Oñativia. Txaleto urdina.
- Gure Kalea.** 1977. 30. Juan Carlos Amiano. Txaleto gabe, laxo gorri eta beltza eta galza zuria.
- Pela Union.** 1978. 50. Jose Mari Lakunza. Txaleto berdea.
- Lizardi.** 1984. 30. Maite Armonanz. Txaleto grisa eta goma zuria.
- Uzturre.** 1988. 35. Justo Lalo. Txaleto gabe eta galza gorria.
- Kabi Alai.** 1992. 30. Kike Cea. Txaleto koadroduna eta topola urdin iluna.
- Urdiña Txiki.** 1993. 40. Carlos Garmendia. Txaleto urdin argia.
- Amaroz.** 1994. 20. Iñaki Tadeo. Txaleto horia eta bapal horiak.
- Gure Txakoa.** 1994. 55. Josu Karrera. Txaleto urdin iluna.
- Aurrera.** 2000. 30. Juan Ramon Insauti. Txaleta gorria.
- Beotibar.** 2001. 20. Aitor Uriz. Txaleto koadro beltz-gorria.
- Arco Iris.** 2005. 50. Iker Usón. Txaleto estampatu zurian eta gorria izaten.

GUTUNOK >

Udalaren 'apartheid'-a

Agur egun zoragarria, poztu dezazu herri guztiak. Eta hemen dira sanjoanek. Suta, leza, ura, salbask, karpinik, lizarra, zarata, arrauna, soina, dantza... eta barruan xirrarra. Pozo eta mina aldi berean, litozuzen mina sentitzen dugua eta errietan, amorrua.

Era zergatik, bestak ondo pasatzeko eta penak ahalik eta gutxiago izateko? Arrazoia sinple batengatik: festetan oraindik ere nabarmenago geratzen delako indar politiko bat Udalaren aldean jaseten ari den apartheid politikoa. Ez gara gutxi azken bi urteetan aliatuak eta korporazioari defizit hazi konpontzeko eskatzen ari garen tolosarrak, azken bi urteetan egin dugun bezala. Tolosarrak batak bategu udeletzean ordezkaririk gabe utzi gaituztenak, eta ezin dugu bordon-dantzan atera, ez eskopetariekin, ez tori agurari ezertoxe ere gertatuko ez balitz bezala. Izan ere, guri gureak falta zaizkigun udaltzako baldintzak. Eta horrek min ematen digu, eta amorrua.

Aldate jauna, ez duzu ezertoxe ere egin epeko konpontzeko beste herri batzuetan egin duten bezala (Azkoitia da azken adibidea). Gogokatu emango bazitzaite, konponbidea zure eskutetan legoke. Baina zuri bost axola herriak batzuk nola sentitzen diren. Baina jakin behar duzu ez gara berriz ere mailako herriarrak. Ezta gukiago ere.

Amaitzeko, jakin behar izateko aldateak eta zinegotziak ez dugula egoera hau inola ere onartuko; gure herriak bizi duen egoera hau ez dela zuzena, ez dela bidezkoa, eta kalte egiten diola herritarren arteko elkarbizitzari.

Korporazio honetan bere ordezkariak sentitzen ez duten gazte talde, eskopetari, bordon-dantzari, dultzarero eta abarren izenarean.

JON ZEPITIA, GARBINE AZALDEGI, JUAN RAMON INSAUTI, JON BERASTEGI, JOSU KARRERA ETA JON ANDER AIZPURUA • TOLOSA

Ezenarro
Zure lehoiak gurean
Lehoi isolagarriak • PVC
Haguturak aluminioa •
Egur antzizintza
San Francisco, 26 • behea
20400 TOLOSA • Tel.: 943 11 85 36
Faxa: 943 11 85 33

Café Trinia
Sanjoanek ondo pasat!
Pintxoak eta plater konbinatuak
Gorkes
Sanjoanek ondo pasat!
Kalea, 11 | Lp. 104 | 20400 TOLOSA | Tel.: 943 65 00 34

'ZURE UMEEN DENDA'
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun aholkuak
zakuak • mandreak • che estalkiak
BIZI BERRIETAKO KONTAKTUA: **02 20 20 20 20**
BUGABOO • BEBECONFORT • QUINNY • INGLESINA
BEBCAR • IANE • MAXI • COSI • CASUALPLAY • STOKKE
Bizi Berrietako KONTAKTUA: **02 20 20 20 20**

Altoona
LIZARRA
2017ko urteko produktu berriak
TOLOSA Korreo, 39
Tel.: 943 67 14 14

YOSU IHERMIK
POLIURETANO AROZTEGIA, PVC, ALUMINIOA
LEHOIAK, PERTSIAK eta ARMARJAK NEURRIERA
Horo 8a kalea, 31 • Tel.: 943 65 01 61 • San Francisco, 8 • Tel.: 943 65 01 61 • TOLOSA

Dietetika eta Belardenda ZAINBERRI
Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

Gozetegia, konfitegia eta izoztegia
EGEIZA
Teilak eta Zigarriloak
Pablo Gorosabel, 31 • Tel.: 943 65 01 61 • San Francisco, 8 • Tel.: 943 65 01 61 • TOLOSA

MAIXINA Sanjoanek ondo pasat!
Etxeko tresna elektrikoak konponteko
Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

ELKTRIKOAK ILUSTRO
Argiztapena
Iner. Elektrikoak
Alakotz automatikoak
Antena kolektiboak eta bakarkakoak
Musika erdientzari zentzatuak
Inerziozkoak, etxebizitzetako, gondoak.
Iurre Auzoa, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 09
Nafarroa etorb. 11 • Tel.: 943 65 71 1 • BEBASAN

in gremioen koordinazioa
argiztapenak & ingurukoak
inertziak & pinnoak
antzek
ekialdeko & idonizkoak
omak & lehoak
altzariak & salbaskak
Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 50 40

Ondo pasa Jaia!
morin pose irabaz. 10 • behea
Tel.: 943 67 26 54

AITZOL ELKARREKIN ARRAUNEAN EUSKALTEGIA EUSKARAREN BATELEAN
Gorosabel 34-B
Tolosa
Tel. 943 65 10 06
aitzolu@euskalnet.net

Sam Kartazalak Poltsak
Tel.: 943 67 42 81 • Faxa: 943 67 21 84 • www.sam-tolosak.com

XOILAN, S. L.
Tel.: Faxa: 943 67 65 26
Mug.: 959 94 87 85
Igarobidea, 1 • behea • TOLOSA
• garbiketa orokorrak
• lokal komertzialen mantentza
• buldogak • tabakak
• kaseteak etabar
• lur zorrotz diskira eman
• inguruko sistemak muletan garbituta
• eta tapizan garbiketa orokorrean

ONDO PASA JAIAKI!
Tel.: 943 65 07 84
Nafarroa etorb. 17
TOLOSA

Tolosaldea BUS S.L.
Festa onk
poso
Sanjoanetari!
Ibilaldiak • Ezteiak Agurariok • kaseteak Kirol taldeak
Tel eta faxa: 943 65 06 21 • mug.: 619 723 819 • Donostia Eob. 9 • TOLOSA

FRONTON KAFETEGIA
plater konbinatuak
ogitarteak eta menua
San Francisco, 4 • Tel.: 943 65 14 70
TOLOSA

ALDAMA
Tel eta faxa: 943 65 06 21 • mug.: 619 723 819 • Donostia Eob. 9 • TOLOSA

Xirimiri Txokolategia
Ondo ibili!
Tel.: 943 65 02 29

YULEN ondo pasa sanjoanetan!
Janari ondrea
Alta Larremendi, 3 • 20400 TOLOSA

KATZA PINTOXAK - BOKATAK ANOAK PLATER KONBINATUAK
Plaza Berrio, 6 • 20400 Tolosa
Telefono: 943 67 49 13

ONDO PASA SANJOANAK!
sanjoanek TOLOSA 2005

PAULINO SORBARAIN I.
1.918 tik aurrera
Fundiziozako modelok egurrean, poliestirenoan eta resinan
Dentsitate handiko polietilenoen mekanizatuak
Enbalaketa
Donostia Etorb. 6 • TOLOSA
Tel.: 943 65 25 58 • Faxa: 943 69 73 49
E-maila: PAULINO_SOR@terra.es


ONDO PASA SANJOANAK!
sanjoanek TOLOSA 2005

Berrio
1007 iraultza da! Bere zain gaudela
1007
TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A • TOLOSA
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
e-maila: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

PILOTA ▶

Etzi jokatu dira HITZA Txapelketako finalak Beotibarren

9:30ean hasita 6 maila desberdinetako finalak jokatu dira; sailkatu diren 22 pilotarrietatik 9 dira eskualdekoak



HITZA pilota txapelketako partida bateko une bat. I. TERRADILLOS

INIGO TERRADILLOS

Pasa den apirilaren 27an hasi eta dagoeneko iritsi da final handirako ordua. Izan ere, etzi, igandean jokatu dira HITZA pilota txapelketako final guztiak Tolosako Beotibar pilotalekuan 9:30etik aurrera.

Denera 240 parte-hartzaile izan ditu Aurrera-Saiatz elkarrekin antolatzen duen eta esku-pilota haur eta gazteen artean sustatzea helburu duen txapelketak. Benjaminetan, alebinetan eta infantiletan 24na bikote aritu dira, kadeteetan 40 pilotari eta etorkizunetan beste 24 bikote. Aurten, Leitzaldera eta Baztan aldera zabaldu da txapelketa eta erantzun ona izan du, pilotari askok eman baitu izena bertatik. Eta, ondorioz, partaidetza nabarmen igo den bezala, maila asko handitu dela azaldu du Luis Galarraga antolatzaileak.

«Maila hori txapelketak aurrera egin ahala handitzen joan da, eta finalean argi geratu da», dio antolatzaileak, eta horren arabera partidak nahiko orekatuak izango direla azaldu du, pilotarien artean ez baita alde handia egongo. «Horregatik, zaila da faboritoak zein diren esateak», dio Galarra-

gak. «Gainera, finalean asko alda daitezke gauzak, urduritasunak areagotu egiten baitira, eta pilotari gazteak direnez hori asko nabaritzen da, batzuk finalarena asimilatzen dakitene, baina beste batzuk zama hori gainean izaten dute». «Finalak direnez senideak ez dira faltako eta horrek ere zeresana izaten du pilotariengan, ohikoa baina jende gehiago izateagatik euren begira, baina aldi berean lagunerekin eta gurasoekin animoak lagundu ere egiten dute», azaltzen du antolatzaileak.

Mailaz maila, 6 guztira, 22 pilotari ariko dira finalean nor baino nor; benjaminetan Ontsaldo eta Elizalde baztandarrak Altuna eta Otamendi amezkatarren aurka jokatu dute. Alebinetan, Matxinea eta Arratibel ordiziarrek Luzia eta Manzisidor antziguarren aurka lehiatu dira. Infantiletan, Sukia eta Arzelusek —Mendinueta ordez— osaturiko amezkatar bikotea Ansotegi eta Zinkunegi nafarrak eta Antiguokoak osaturikoaren aurka izango da finala. Kadeteetan, Telletxea (Aurrera Saiatz) Albizturkoak Iturrioz (Pilotajoku) altsasuarren aurka jokatu du. Etorkizuneko mailan, Elurbe lizartzarrak eta

Garmendia legorretarrak (Zazpitarri) osaturiko pareak Renobales (Aurrera-Saiatz) alegiarraren eta Larrazabal berriarraren aurka jokatu du. Eta maila berezian, Retegi (Oberena) eratsundarrak eta Arruti (Andazpe) usurbildarrak Belloso (Aurrera-Saiatz) tolosarra eta Oteiza (Aurrera-Saiatz) zarautzarraren aurka lehiatu dira. Horiek guztiak dira igande goizean Beotibarren ikusi ahalko diren partidak 9:30etik aurrera, orden horretan. Goiz polita igarotzeko aukera beraz pilota jaialdi apartatz gozatuz.

Datorren urteari begira

Antolatzaileak oso gustura azaldu dira aurtengo txapelketa nola joan den ikusita. «Partiduetan oso giro ona izan da, eta Alegian, Adunan, Albizturren, Bidegoianen eta Tolosan jokatu direnetan izan den ikusle kopuruarekin gustura gauden», adierazi dute. Bestalde, datorren urteari begira, aurtengoa ikusita berrikuntzarik sartzea espero dutela esan dute, «izan ere, lehen jubenilen maila ere bazegoen, eta hori berreskuratzea gustatuko litzaiguke», gehitu dute.

FINALISTAK ▶

Benjaminak.



Ontsaldo-Elizalde.



Altuna-Otamendi.

Alebinak.



Matxinea-Arratibel.



Luzia-Manzisidor.

Infantilak.



Sukia-Arzelus.



Ansotegi-Zinkunegi.

Kadeteak.



Telletxea.



Iturrioz.

Etorkizunekoak.



Elurbe-Garmendia.



Renobales-Larrazabal.

Maila berezia.



Retegi-Arruti.



Belloso-Oteiza.

IBARRA ▶ HEZKUNTZA



Argizatze kutsaduraren inguruan

I.Terradillos ▶ Uzturpe ikastolako DBH 3 eta 4ko ikasleek zientzia tailerlean landu duten lana aurkeztu zioten atzo Consuelo Romeo Ibarra alkateari. Nekane Tolosa ikastolako zuzendaria eta Ander Camarero ikaslea izan ziren aurkezpenean. Kristina Zuza Aranzadi elkarteko astronomia saileko arduradun nagusia da irakaslea, eta berak proposatu zien ikasleei argizatze kutsadurari buruzko ikerlana egiteko. Horrela, Ibarra farolak aztertu dituzte: ze motatakoak diren, kutsakorak diren ala ez, gehiegi dauden... Ibarri buruzko ikerketa egin aurretik ikastolari buruzkoa egin zuten ikasleek, eta orain herrikoa burutu dutelarik, argikuntza berria jartzten denean beraien lana kontuan hartzea gustatuko litzaiekeela azaldu dute. I.TERRADILLOS

BERASTEGI ▶ HEZKUNTZA



Giro politean agurtu dute ikasturtea

I.Terradillos ▶ Atzo egin zuten Berastegiko Muñagorri eskolan ikasturte bukaerako jaialdia. Goiz osoan ekitaldi ugari izan ziren eta festa polita egin zuten ikasle eta irakasleek gurasoak ere bertan zirela. Eskolako txikiak hasi ziren, 4-5 urtekoak hain zuzen, Galtzagorri langileak izeneko antzerki saioarekin. Txikiak ostean gainerako ikasleek euren dohainak erakutsi zituzten. Antzerkia eta gero hamaitetakoak prestatu zuten. Dantza saioa eta buruhandiak ere izan ziren goizean zehar. Antzerkiez gozatzeko aukera izan zen bezala, ikasleek egindako txorimaloak ikusi ahal izan ziren. Herrian aspaldian zegoen ohitura berreskuratuz, badira urte batzuk txorimaloak San Joan sutara botatzen dituztela. Atzo ere berdin egin zuten. I.TERRADILLOS

JULEN ZELARAIN ▶ PRESO OHIA

«Denon artean baliatu behar dugu momentu politiko hau»

«Gertutik bizita, espetxe politika askoz gogorragoa da», dio Julen Zelarain billabonatarrek

IMANOL GARCIA

Julen Zelarain billabonatarra aurreko astean askatu zuten fidantzapean, ia lau urte espetxean igaro ondoren, epaiketarik egin gabe.

Nola jaso duzu espetxetik ateratzea?

Egia esan, hasieran pixka bat eromena da, telefonotik zintzilik egoten zarelako denbora pila bat. Oraindik lurra hartu gabe nago. Bestela, ondo. Lau urte ez da denbora gutxi, baina ez da ere beste kasutan bezainbeste. Epe labur batera egokituta ikusten dut nire burua egunerokotasunera.

Nola gogoratzen duzu espetxean emandako denbora?

Sentsazio ezberdinak ditut. Nire zati bat barruan utzi dudala iruditzen zait orain. Espetxean kideekin 24 ordu ematen dituzu eta elkarbanatzen da dena: momentu alaiak, tristeak, gogorak, politikak... Bestalde, zuzenean ezagutu dut espetxe politikoa. Gertutik bizita, askoz gogorragoa da. Ez bakarrik bizi baldintzen inguruan; bereziki sentimenduen inguruan egiten duten txantaiarengatik: nik semea daukat eta banaketa horretaz baliatzen ziren. Bestalde, nahiz bizipen txar asko egon, esperientzia hori erabat aberasgarria izan da, zure bizipena eta eza-gupena izugarri areagotzen delako.



I. GARCIA

Preso politikoek kolektiboaren alde aritzen ziren lanean espetxeratu aurretik. Espetxean izan ondoren nola ikusten duzu lan hori?

Barrutik bizituta gehiago barneratzen duzu kanpoan dinamika hori aurrera eramatearen beharra eta espetxetik ateraz gero konpromisoa hartzen duzu dinamika horretan jarraitzekoa. Nik behintzat horrela ateratu naiz, lanerako gogoare-

kin eta lehenago baino uste sendoagoarekin.

Nola ikusten duzu egungo egoera politikoa?

Momentua oso interesgarria da, nahiz eta arriskuz beteta egon daitekeen. Baina urratsak emateko aukerak badaude. Egoera hau ere denon artean behar bezala baliatzen saiatu beharko ginatke, ahal den jende gehienaren inplikazioarekin.

PRESOAK ▶

Elkarretaratzeak preso politikoek eskubideen alde

Euskal presoak Euskal Herrira loloan hileko azken ostiraletan egiten den moduan, gaur ere eskualdean kontzentrazioak egingo dituzte ohiko lekuetan. Alegian, Anoetan, Ibarra eta Tolosa, 19:30ean hasiko dira, eta Adunak, Altzon, Amezketan, Asteasun, Ikaztegiatan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilan, 20:00etan hasiko dira.

BELAUNTZA ▶

Kirol eskalada ikastaroa Udalak antolatuta

Belauntzako Udalak kirol eskalada ikastaroa antolatu du. Ikastaroa uztailaren 2an, larunbata, hasiko da goizeko 10:00etan Belauntzako frontoian. Uztailaren, irailaren eta urriaren burutuko da eskalada ikastaroa. Saiok bi ordukoak izango dira eta larunbatero egingo dira. Frontoian izango dira saio guztiak. Hileko 20 euroko kuota ordaindu behar da eta lehenengo ize-na emateko unean kobratuko zaio parte-hartzaileari. Hilaren 30a da azken eguna ize-na emateko.

IBARRA ▶

Sendi Ekintzan
giltza berriak
jasoko dira
larunbatetik

I.TERRADILLOS

Sendi Ekintzak sarraila aldatuko duela-eta, bazkideei giltza berria jaso beharko dutela jakinarazten zaie. Horretarako egunak eta orduak hauek izango dira: larunbata 10:30etik 13:00etara, igandea 11:00etatik 13:00etara, astelehena 19:30etik 21:00etara eta asteazkena 19:30etik 21:00etara. Bazkide guztiek Sendi Ekintzara jo beharko dute giltza berriaren bila eta 6 euro ordaindu beharko dituzte hauek jasotzerakoan.

Aipaturiko egunetan ageritzen ez denak 15 euro ordaindu beharko ditu, eta ordurarte ezin izango du elkarrean sartu. Bestalde, aldatu irauten duen bitartean, Sendi Ekintzan eta Zubiaurren egongo dira giltzak behar izanez gero.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispens.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

▶ **Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarain autob.: 948 221015

▶ Taxis: 670420

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

▶ **Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ABALTZISKETA ▶ KULTURA



Zarautz-Txikikoen emanaldia

N. Lataburu ▶ Herenegun arratsaldean Abaltzisketako eliza Zarautz-Txiki abesbatzaren ahots goxoein bete zen. Gazteek emanaldi bikaina eskaini zuten, San Joan suaren bezperan, elizan elkartu ziren herritar guztien aurrean. NOELIA LATABURU

AMEZKETA ▶ KULTURA



Urtean ikasitakoak erakutsiz

N. Lataburu ▶ Amezketako musika eskolako gazteek urteroko udako kontzertua eskaini zuten atzo Zumadi eskolan. Maisutasunez taularatu zituzten urte guztian zehar ikasitako lanak, piano, gitarra, trikitixa eta panderoaren laguntzarekin. N. LATABURU

KIROLA ▶

Gipuzkoako zaldi lasterketako
ligaxkako proba, etzi

Ibilbidea 2,5 kilometrokoa izango da, Amezketatik Abaltzisketara igoera; Ligako 17 zaldunek hartuko dute parte 18:00etan hasiko den zaldi proban

NOELIA LATABURU

Gipuzkoako zaldi lasterketen ligaxkaren hirugarren proba izango da etzi, igandean, Amezketatik Abaltzisketara doan errepidean. Igoera 2,5 kilometrotakoa da eta proba ligaxkan puntuak lortzeko baliagarria izango da. Guztira ligan parte hartzen duten 17 zaldun ariko dira. Ligatik kanpokoek, ordea, lasterketan parte har dezakete, nahi izanez gero. 18:00etan emango zaio hasiera probari eta sariak izango dira denentzat. Giro ederra sortuko da igandean, beraz, bi herri hauen arteko errepidean.

Igandekoan, eskualdeko hainbat lasterkari ariko dira, ligarako puntuak eskuratzen: Axier Mujika (Zizurkil), Iñaki Izagirre (Asteasu), Jose Manuel Iriarte (Leaburu), Jon Lizaso (Asteasu), Millan Telleria (Albiztur) eta Xabin Gogorza (Ibarrara).

Puntuazioa honakoa izango da: lehenengo sailkatzen denak bost puntu lortuko ditu; bigarrenak, lau, hirugarrenak, hiru, laugarrenak, bostgarrenak eta seigarrenak bi eta zaz-



Getarian urtarrilaren 15ean izan zen zaldi lasterketa. HITZA

pigarrenetik atzerakoek (lasterketa bukatzen dutenek) puntu batak.

Uztailean izango da hurrengo hitzordua eskualdean, 17an Asteasun, hain zuten. Bidaniko eta Zizurkilaren ere burutuko dira puntuagarriak izango diren lasterketak abuztuan eta irailean, hurrenez hurren.

Finala, berriz, Deban izango da irailean 25ean; bertan, sailkatutako lehenengo hamabiak izango dira. Bi final egingo dituzte: sailkatutako lehenengo sei artekoak eta gainontzeko sei parte-hartzaileena.

Bestalde, igandean Gipuzkoako Segat Txapelketako bigarren kanporaketa izango da

ZALDI LASTERKETA ▶

LIGAKOAK

Zaldunak	Puntuak
Aitor Odriozola	4
Asier Mujika	0
Josu Castañares	0
Igor Castañares	0
Iñaki Izagirre	8
Iñigo Arrizabalaga	1
Joanito Aginagalde	5
Jose Manuel Iriarte	1
Jon Lizaso	2
Josu Lizaso	2
Pedro Jose Saizar	3
Asensio Saizar	1
Millan Telleria	2
Pedro Antonio Birgaila	2
Txomin Zubia	1
Xanti Telleria	0
Xabin Gogorza	3

Orendainen. Saio honetan, beste bi segalari sailkatuko dira final handirako. 12:00etan izango da hitzordua Zubeltzu azpi zelaian eta bertan Mikel Aranalde, Juan Manuel Erasun, Jesus Maria Ormaetxea Urki eta Andoni Zuriarrain ariko dira aurrez aurre, Udalak, Ostataua eta Anoetako Bentaldea jatekarek lagunduriko deman.

TOMAS ERBITI ETA TIBURTZIO AZPIROZ ▶ DONE JAKUE BIDEKO IBILTARIAK

«Hiru egun egin genituen zelai bat gurutzatzen»

Bi leitzar hauek 1.000 kilometrotan ikusitakoarekin harrিতuta etorri dira, baina ez nekatuta

JAIONE ASTIBIA

Tomas Erbiti (61 urte) eta Tiburtzio Azpiroz (62 urte) leitzar itzuli berriak dira, ibilian egin duten bidaiatik. 32 egun; 1.000 kilometro baino gehiago; Sevillatik (Espainia), Santiagora (Galizia): Done Jakue Bidearen Zilarrezko Bidea egin dute. **Orain dela egun batzuk aillatu zarete etxera. Atxoin duzue? Tiburtzio Azpiroz.** Bai. Etxera larunbatean ailegatu ginen. Satiagotik Bilbora hegazkinez etorri ginen eta anaia joan zen gure bila. Ni behinik behin ez nago nekatuta.

Tomas Erbiti. Bai, bai, berriz hasteko moduan. Gaur ere mendian ibili naiz goizean. Etorriz gerotik ere egunero egin dut mendian bueltatxo.

Sevillatik Santiagora, Zilarrezko Bidea egin duzue. Zenbat bide da hori?

T.A. Liburuz, 992 kilometro. Baina ziur nago gehiago ere izanen direla, 1.000 eta gehixeko ere, aise.

T.E. Begira, guk ibilitako orduen ariora egin ditugu kalkuluak eta erabat martxa beretsuan ibili gara. Eta gidan agertzen diren etapen luzerak eta iraupenek ez dute kointziditzen. Igoal etapa motzagoa zela jartzen bazuen ere, guk denbora gehiago egiten genuen bidean, eta alderantziz ere bai.

T.A. Hortik kontuak aterata, gidan jartzen duen baino kilometro gehiago badaude.

Nola sortu zitzaizuen ideia?

T.E. Ni lehenagotik izandua

naiz Santiagon, bide desberdinak eginez: Donibane Garazitik, bi alditan Orreagatik eta Aragoiko Somportetik (Espainia). Eta oraingoan Sevillatik (Espainia) egitea otul

T.A. Ithoetako bazkarian holaxe esan zuen Tomasek, eta ni ere joan behar nuela esan nion. Probatzeagatik, hara.

Eta zergatik bide hau?

T.E. Egindako bide guztiak denak hemendik aterata eginak izaki, aldatzeagatik. Eta gero, bide hau ongi prestatuta dagoelako ere bai.

Joan aurretik ibilbideak ez ezik, zerok ere prestatu beharko zenuten, bada?

T.A. Aurretik ongi prestatuta joan behar da, ibilita. Eta gero, han ere kuidoaz ibili, martxa beretsuan eta etapak errespetatuz. Biharamona ere etortzen baita.

T.E. Hara prestatzera joaten dira majina bat, han ohituko direlakoan. Eta koadro bakoitza ikusten da... Aurretik ibiltzea, asko, oso garrantzitsua da.

T.A. Eta joan aurretik informazioa biltzea eta libururi begiratzeko ere bai. Etapak motzagoak diren...

T.E. Bidean janaria erosteko lekuri badagoen, non, lolekuri, albergea, alegia, badagoen, nolakoa... aurretik jakitea oso baliotsua da. Albergeak ere txarrenetik hasi eta hobereenera, denetik bilatu dugu.

T.A. Batzutan borondatea eskatzen zuten, hauetan lotarako lekua besterik ez zegoen, beste batzutan hobeki prestatuta



JAIONE ASTIBIA

daude, manddare eta eskuiahalekin, eta 9 bat euro kobratzen zuten, aparria eta gosaria ere.

Noiz ateratu zineten?

T.A. Maiatzaren 16an ateratu ginen Iruñeatik Madrilera (Espainia) trenez. Handik Sevillara AVEn.

T.E. Han Done Jakue Bidearen Lagunen Elkartera joan ginen erromesen txartela egitera. Eguneko etaparen bukeran ailatutako lekuan txartelean zigilua ematen ziguten. 32 egunetan Santiagon ginen, ekainaren 17an.

Nolakoa izaten zen eguna?

T.A. Etapa motza bazen (28-30 kilometroko edo), 6:00ak aldera jeiki, gosalduta eta beroketa eta luzaketa batzuk egin ondoren, 6:45erako abiatu. 10:00ak aldean, herrian tokatzen baginen bertan gosalduta, bestela eramandakoa.

T.E. Hori goizean ateratzerako bagenekien, hala izanen zen edo ez.

T.A. 13:00-13:30erako bukatu. Dutzatu, arropa garbitu, bazkaldu eta siesta. Ondoren, herria pixka bat ikusi eta biharamoneko etapari erreparatu ondoren, afaldu eta 9:30-10:00ak aldera lotara.

T.E. Etapa luzea bazen, berriz, 40-42 kilometrokoa, goizego jeikita abiatu eta 15:00-15:30 aldera aillatu.

Hegotik Iparrera, oso desberdina izanen da dena: lurraldea, jendea, hizketa...

T.A. Oso. 8 lurralde zeharkatu ditugu eta behetik gora, sekulako desberdintasuna dago. Gali-

zian sartu ginenean, herri tiki batean, hango amona batetik hizketakoan, ez genuen tutik ere ulertzen... Eta parajeak? Esate baterako, Extremaduran 3 egun igaro genituen zelai bat zeharkatzen, joan eta joan, eta ez bukatzen!! Mahasti tartean, zerri beltzak ikusiz...

T.E. Salamancan, berriz, dena artea eta artelatza da. Oso polita da dena. Berezia. Aberatsa.

T.A. Egunero jende desberdina ikustea... Gero goizean jeiki eta «ah, ez, gaur holako lekutan negok, atzo ginuzean, han» esanez, arraroa ere bada.

T.E. Jende asko, goialdean ikusi dugu. Bidean erabat 6 lagun ibili gara bateratsu, eta bukatu 3 euskaldun —errenteriar bat eta gu— eta 2 belgikarrek egin genuen.

Lekurik politena zein iruditut?

T.A. Galisteo herria, dena harriz inguratua, sarbideetan zubiak dituela, Caceresen. Ikusgarria.

T.E.: Astorga.

Gertakari zelebren bat ere pasa izanen zaizue, ziur?

T.E. Arropak garbitzen ari nintzela, emakume batek esan zidan, «mola nabari den emaztea ez dagoela», eta «ez, Tolosara jaitzi da» erantzun nion. Hark ez zekien non zegoen ere.

T.A. Afarian, gazta eta menbrilloa eskatu nituen eta ez zizkidan ekartzen eta ondoko mahaitik esan zidaten «arraultzak egiten ari baita» eta esan nion, «ez, tortila egiten ariko da». Eta han esperoan geundela, ia mahaiaren eseri gintezkeen galdetu genuenean, hala erantzun zi-

gun etxeoandreak: «Jainkoaren izenean, mahaian ez, mese-dez, aulkietan egin». Nik broman esan nuen, gero niri zinetan erantzun hark.

Etaparik gogorrena?

T.A. Berezi ez. Nekatu bai, egiten ginen, etaparik luzeen eta, beranduxeago bukatu ere bai eta eguneko berorik handienak harrapatu ditugu horietan. Baina behin bukatu eta dutxa hartuta, berrituta gelditzen ginen. Ongi.

T.E. Oinetako onak erabili ditugu, gozatuak, berak trekingoak eta nik mendiko bota biguinak eta ez dugu inolako arazorik izan hanketan. Gainera, dutxatu ondoren, erromerokko alkoholarekin igurtzitzen genituen hankak, azala gogortzen baitu. Hori zan da gure erremedioa.

Zer da gehien kosta zaizue?

T.A. Motxila eramatea. Erabat, 12-13 kilo bizkarrean! Zenbait egunetan, gainera gosaria eraman behar zen eta biderako ura ere bai.

T.E. Galizian, ez zen horren beharrik, 8 iturri eta horrela izan ditugu hango etapetan. Baina, behian, batera ez!! Bestela ibili, aise. Gehiena mendiz, trashumantzikiko erret abelbidetik eta...

Tomas, beste ibilaldiekin parekatuz, oraingoan lagunarekin joan zara.

T.E. Bai eta kristoren alde dago, hizketarako eta. Geron rafi-rafetxoak ere izan ditugu, baina ederki konpondu gara. Beti bilatzen da norbait bidean, baina zu hainean ibiltzen dena bilatzen oso zaila da, azkartxo edo mantsoxeago ibiltzea da ohikoa. Guk biok ongi hartu dugu elkar.

Tiburtzio, zuk berriz, aurreneko aldia zenuen. Errepikatzeo asmorik?

T.A. Motxilarekin ibiltzea... Baina, oso luzea ere ez zait egin. Okerrena, 3 hilabete lehenagotik prestatzen hasi behar hori egin zait, negua ere zen eta, elurra eta hotza...

T.E. Nik bai! Gainera Hendaia-Irongo Santiagoko zubitik hasita.

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta

OSKI GAZTEA

Emeterio Arese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko ekainaren 24a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **25** hotzena **18**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Gaztelu. *Una historia verdadera* filma Ostatuan 19:30ean.

Ibarra. Etziko batel estropadetan Ibarako arraunlariei animatzera joan nahi dutenentzat gosaria Sendi Ekintzan 10:00etan.

Tolosa. Tolosa CFk binakako 37. Pala Txapelketa antolatatu du Berazubiko frontoian, eta izen-ematea zabaldu du: bulegoetan, 17:00etatik 20:00etara (Berazubi estadiumean, 943 67 17 49) edo 607 447 677 telefono zenbakian (Pello). Prezioa: bazkideek 10 euro, eta ez bazkideek 20 euro. Epea: uztailaren 2a.

Tolosa. Tolosako Ostalaritza Elkarteak batel estropaden porra antolatatu du, igandeko finaleko sailkapena ea nork asmatzen duen. Txartelak tabernetan har daitezke eta bi euro ordaindu behar da apustu bakoitza.

Tolosa. Eduardo Mokoroa udal musika eskolan matrikula epea zabalik dago hilaren bukaera arte, 9:30etik 13:30era.

ERAKUSKETAK

Hernialde. Pinturak. Herriko Ostata.

Tolosa. Dick Recalderen pinturak Aranburu Jauregian.

Tolosa. Kultur Etxeko tailerretako ikasleen lanak Aranburu Jauregian.

Tolosa. Carmen Mateoren akuarelak Fronton kafetegian.

Tolosa. Malen Urtzelairan margolanak, Sorrn enmarkazio dendan.

Tolosa. Josu Gonzalezen argazkiak Saikin tabernan.

Tolosa. Alejandro Gonzalez. Pinturak. Lanbroa taberna.



2.400 euro, Beotibarretik Saharako eskoletara

TOLOSA ▶ Gure Txokoa elkarteak *Frontoitik eskolara, Tolosatik Saharara* pilota jaialdian jasotako dirua eman zion, atzo, Tolosaldea Sahararekin elkarteari. 2.400 euro jaso ziren jaialdian, eta El Aaiun-go eskoletako ikasleentzat «material egokia» lortzeko bideratuko da. Tolosaldea Sa-

hararekin elkartekoek eskerrak eman zizkien «Gure Txokoakoei, jaialdian parte hartu zutenei eta herritarrei emandako laguntzagatik». Argazkian, Tolosaldea Garatzeneko Ana Trapero, Gure Txokoako lehendakari Iñaki Garmendia, eta elkarteko kide Koldo Arsuaga. LEIRE MONTES

LEHIAKETAK

Zizurkil. Umorezko bakarrizketa. 500-700 hitzekoak. Sariak: 500 euro lehenak, 300.2.ak eta 150 herriko lehenak. Irailaren 15 arte udaletxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112

IRRATIA

Txolarre (FM 107, FM 101)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: albisteak, Julen Zelaraini elkarrizketa, Eberat, agenda, lehiaketa...
19:00. Errepikapena.
21:00. Hala Bediko Zaharrak berri.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Beñat Ezenarro Irigoien (Tolosa). Gaur 5 urte. Familiaren partetik zorionak.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

TOLOSAGASA

Tolosako energia. Zurea
Energía de Tolosa. Tu energía

Arostegjeta, 18 • TOLOSA
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

FESTAK ONDO PASA!

T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com



Albisteonak
Euskadiko Kutzako bezeroentzat

Euskadiko Kutzak aukera ezin hobe eskaintzen die bere bezeroei **SEAT bat %16 merkeago eskuratzeko**

Euskadiko Kutzak hitzarmen bat egin du SEATEkin, eta horren arabera nomina bertan helbideratua duten bezeroek **%16 merkeago** eskuratu ahal izango dute gogokoen duten SEAT autoa. Horrela, erosketak Euskadiko Kutzaren bidez finantzatu, beharpen berezi horretaz baliatu ahal izango dira.